


...Oso heze dago dena! Horrela, arropa ez da inoiz lehortzen.

Eta zer hotza egiten duen egongelan...

Gaur felpazko maindireekin egin dugu ohea. Esan zidan azkarrago lehortzen direla eta berehala berotzen dutela. Lehortzen dute, nekatzen dute, ur guztia ateratzen dute bere baitatik, bere barrutik. Lehortzen direnean lehortu egiten dira, eta usaina ere hartzen dute.

Gatza, zopa, begira ari zaigun sugea , ametsa, galtzarbea, sargazoa, bakardadea.

Zopa, ametsa eta beira lausotuak. Hontz baten irudia marraztu dut beiretan, bai eta berehala ezabatu ere, inork ikusi baino lehen. Nire hats tipula-usaindunaren lurrinez bete ditut nire marrazkiaren arrastoak. Bai, inork ikusi baino lehen egin dut hori dena.

Irudipenak, erraiak, pinpilinpauxak eta sumendiak ikusi. Moura sorginduei buruz, gatipetroari buruz, Banduari buruz, Hamalau-zakuri buruz eta Maria Ganchari buruz entzun dituzun elezakar guztiak berak baino sakonagoko sumendiak.

Orain begira ari zaigun sugea..., itsasoko gatza, hutserako jauzia, Rosaliaren Sil ibaia, beira lausotuak eta hautsiak, zoroentzako tokiak. Lokomotorrak. Zentzurik gabeko soinuen motorra, silabak, siloak. Silexa... harriak. Arroka isilak eta aldi berean zurrumurrus beteak:

Rssss!

Buaaa!

fuuuuuu!

bzzz!

Deabruak, dilemak, belarri gorrak, laino-egunak eta zenbait dioptria, pentsamenduaren ertzak zehatz-mehatz mugatzerik ez izateko. Ur-tanta txiki-txikiak. Ipar Atlantikoa.

Betaurrekoak erori zitzaizkidan itsasoko uretan, eta segundo gutxi batzuk gehiago pasatu izan balira,

betiko galduko nituzkeen. Urte batzuk geroago,
gogora etorriko zait ikuskari gazi hori.

Urte batzuk geroago, gogora etorriko zait ikuskari
hori, baina basoilarraren lumak lagun baten
dantzagatik bakarrik gogoratuko ditut. Lagun horrek,
inaute-astearte guztietan, zintzarriak astinduz uxatzen
ditu herriko mutil harropuzak.

Basoko ilunean, katutxoek wi-firuditxoek mingaina ateratzen digute keinu
irrigarri eta, barru-barruan, gosebera batez. Izutzen gaituzte, pena ematen
digute, eta min; urrezko, Duero ibaia, urre, isla, belaunikaldia. Baldosazko
zorua garajeko atean eta segidan haritz amerikarrezkoa egongelan eta
logeletan. Materia, objektua, egitura eta irudimena. Askatasuna, libertinajea,
laberintosia, low-fi soinu-ekipoak.

Zeharka ari du euria... baina ez du ez berotzen ez
hozten, hemen gauzak horrela direlako...
erakusleihoak birmoldatzeko lanak, zigarreta
elektronikoak tabernako barran.

Bat-batean freskatu du,
eta haizearen igurtziak betileak orrazten dizkit.
Menuan dena sartuta dago, baita chantilly kremadun
esne merengatu pota bat ere.
Hau luxua! Hau porrota!

Mendi zulo baten zoko-zokotik, durundika hedatzen dira ahots baten barre-
algarak, eta ahots horrek, bere hats gaiztoa zabalduz, inoiz benetan ezagutarazi
ez diren baina denboraren zirrikituetatik itzurtzen diren sekretuak aletzen ditu
marmarka, lurraren gainazalaren eta lurpearen artean, sukar ametsezko zirkulu
eta konstelazioak

eratuz.....

.....

..... hori horrela da, "izan bai baitira, bai baitira".